



III BARNE INFORMAZIOA

Egape Ikastolaren
helburu nagusiak
ikasturte honetarako



III LEHEN HEZKUNTZA

Proiektu berria martxan:
Ikaskuntza
Kooperatiboa

31

2010
URTARRILA

aballarri

EGAPE IKASTOLAKO ALDIZKARIA



Geure danborrada!



Egape Proiektua

Proyecto Egape



• 2 urtetik 16 urte bitartera. **Ezaugarriak:**

- Integrala.
- Euskal kulturaren oinarrituta.
- Eleanitza.
- Gaurkotua.
- Baloreetan eta elkarlanean oinarrituta.
- Desde los 2 a los 16 años.

• Desde los 2 a los 16 años. **Características:**

- Integral.
- Fundamentado en la cultura vasca.
- Plurilingüe.
- Actualizado.
- Basado en valores y en el trabajo colectivo.

Gure eskaintza

Nuestra oferta educativa



www.egape.org



Gure webgunean,
guztia buruzko
informazio gehiago.

Haur Hezkuntza

- Urtxintza proiektua.
- Eleanitza (euskara eta ingelesa).
- Irteerak (didaktikoak eta elkarbizitzakoak).
- Musika, ingelesa eta psikomotrizitatea espezialisten esku.
- Tutoretzak.
- Ordenagailuaren erabilera.

Educación Infantil

- Proyecto Urtxintza.
- Plurilingüe (euskara e inglés).
- Salidas didácticas y de convivencia.
- Música, inglés y psicomotricidad impartidos por especialistas.
- Tutorías.
- Utilización del ordenador.

Ikasgai aurreratuak ikasleentzat

- Euskal dantzak.
- Xakea.
- Judo.
- Gitarra.
- Txalaparta.
- Psikomotrizitatea.
- Eskola kirola.
- Ingelesa.
- Informatika.
- Antzerkia.
- Irratia.
- Bertsolaritza.
- Musika.
- Tutoretza. Gatazken konponketa.

Asignaturas avanzadas para alumnos/as

- Bailes vascos.
- Ajedrez.
- Judo.
- Guitarra.
- Txalaparta.
- Psicomotricidad.
- Deporte escolar.
- Inglés.
- Informática.
- Teatro.
- Taller de radio.
- Bertsolaritza.
- Música.
- Tutorías. Resolución de conflictos.



Egape Ikastolaren helburu nagusiak ikasturte honetarako

Ikastolako Hezkuntza Proiektuak bere funtsezko eginkizuna eta ardatz nagusiak definitzen ditu. Eginbehar berezi hori ikasleen kalitatezko formakuntza integrala eskaintzea da, pertsona gisa hezteko alegia; horretarako mota ezberdinetako oinarritzko kompetentziak landuko ditugu. Formakuntza integrala lortzeko, gure Hezkuntza Proiektuak ardatz edo zutabe nagusi batzuk izendatzen ditu. Hauen artean, jarraitzen dutenak espreski aipatuko ditugu: ikastetxearen antolaketa (tutoretzak, koordinazioa eta harremanak), euskal kultura, eleaniztasuna, aldaketa metodologikoak edo ingurumena, besteak beste.

Ikastolan ezarrita ditugun proiektu nagusiak hauek dira: IKT Ikastetxe Eredua, Kalitatea Hezkuntzan eta Bizikidetza. Hauetaz gain, beste proiektu aipagarri dira: HNP (euskara indartzeko), Eleanitz eta Bhinebi (ingelera edukinen bidez lantzeko), Agenda 21 (ingurumenaren aldeko kultura sendotzeko) eta irakaskuntza kooperatiboa (irakasteko metodologia berriztatzeko).

Gainera, helburu garrantzitsuenen artean beste hauek ere tokia dute: guraso-eskolaren sendotzea, ikastetxeko zerbitzu, hornizio eta instalazioen hobekuntza eta, zer esanik ez, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe berria eraikitzekeko urratsak ematen jarraitzea.

Hurrengo lerroetan proiektu hauen ezaugarri garrantzitsuenak laburtzen ahaleginduko gara, irakurleok Ikastolan egiten den lan hezigarriaren ideia ahal den zehatzena izan dezazuen.

► **IKT Ikastetxe Eredua:** Proiektu honek komunikaziorako teknologi baliabideei erabilgarritasun handiagoa eskola mailan ematea du helburu, orain arte ikasle eta irakasleekin egindako lana jarraituz.

► **Kalitatea Hezkuntzan:** Momentuz DBHko Etapan aurrera daramagun Proiektu honen helburu nagusia eskola mailan egiten den lan

guztia lotura egokia eta koherentzia ematea da, etengabeko hobekuntza ziurtatu nahian.

► **Bizikidetza:** Ikasturte honetan Haur eta Lehen Hezkuntzan Elkarbizitza Plana ezarri nahi dugu. Honen abiapuntua izan da eskola-elkarteko kide ezberdinen artean burutu dugun hausnarketa. Hausnarketaren ondorioz garbi geratu da Ikastolak ongi funtzionatzeko, bera osatzen dugun guztiok (guraso, irakasle eta ikasleak) batera jokatu behar dugula, bai eskola ordutan eta baita eskola-orduz kanpoko jardueretan.

Aipatutakoaz gain Ikastolan beste proiektu eta programa batzuk ere baditugu. Jarraian hauen berri ematen dugu.

► **HNP (Hizkuntza Normalizazio Proiektua):** Ikastola aspaldidanik dago sartuta Proiektu honetan. Bere xedea euskararen erabilera eskola elkarte osoan indartzea eta hedatzea da, Ikastolako esparrua gainditzen ere saiatuz.

► **Eleanitz eta Bhinebi Proiektuak:** Proiektu hauek Ikastolak hizkuntzen alde egiten duen apustua garbi uzten dute, euskara ezezik beste hizkuntzen tratamendua sendotzeko beharra adieraziz, beti gero eta zabalago eta lotuago agertzen den mundu batera begira.

► **Agenda 21:** Proiektu honek ingurumena hobetzeko konpromisuzko jarrerak eta baloreak sustatzea du helburutzat. Aurtengo ikasturtean energiaren gaia landuko dugu.

Egapek aurrera eramaten dituen Proiektu hauek ongi adierazten dute bere dinamismoa eta Urrietako gaztetxoek eta hauen familien alde auzaltzen duen konpromisua kalitatezko heziketa-zerbitzua eskaintzeko, modu honetan bat etorritik Ikastoaren leloarekin: **bizitzarako hezkuntza**.



Los objetivos fundamentales de la Ikastola para este curso

El Plan Anual del Centro cita y describe en su primer apartado los objetivos prioritarios que impulsa la Dirección en este curso. Estos objetivos, en consonancia con nuestro Proyecto Educativo, se desarrollan a través de otros proyectos o programas específicos, que abarcan distintos ámbitos de actuación tal y como se detalla resumidamente en las líneas siguientes.

El proyecto **Modelo de Centro TIC** pretende afianzar en la comunidad escolar todo lo relacionado con las nuevas tecnologías de la comunicación, dando continuidad a lo realizado en esta materia en los últimos cursos.

La finalidad del proyecto de **Calidad**, que de momento se halla implantado en Secundaria, es organizar y sistematizar las distintas tareas que se llevan a cabo en el Centro, con el objetivo prioritario de mejorar la prestación del servicio al alumnado y a sus familias.

El proyecto de **Convivencia** se trabaja en Infantil y Primaria. Su punto de partida ha sido la reflexión efectuada entre los distintos estamentos de la comunidad escolar. Su conclusión es clara: para un

funcionamiento adecuado del Centro, todos sus integrantes deben actuar responsablemente y de forma armónica con unas pautas previamente acordadas.

Además de los anteriores proyectos, basados en los ejes estratégicos promovidos por el Departamento de Educación, la Ikastola tiene implantados otros como el de **Normalización Lingüística**, que impulsa el uso del euskara, o el de la **Agenda 21**, que fomenta actitudes y compromisos para mejorar el medio ambiente. Por lo que respecta al primero de ellos, a lo largo de este curso realizaremos la diagnosis del Centro, mientras que en la Agenda 21 trabajaremos el tema de la energía.

Igualmente dignos de mención son los proyectos **Eleanitz** y **Bhinebi**, o el de **aprendizaje cooperativo**, implantado este curso en Primaria. Todos ellos suponen cambios metodológicos que posibilitan un aprendizaje más activo y participativo del alumno.

La materialización de estos proyectos deja patente el dinamismo de la Ikastola y su compromiso con la juventud y las familias de Urnieta en favor de una enseñanza integral de calidad.

laguntzaileak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte ekintza

Egaperen danborrada

Aurtengo Samielak bereziak izan dira Egape ikastolako guraso eta haur askorentzat. Talde lan dotore bati esker, gure ia ehun ikaslek, laugarren bostgarren eta seigarrenenakoek hain zuzen, Danborradan parte hartu ahal izan dute lehen aldiz.

Esperientzia ederra izan da beraien ustetan, eta datorren urterako ere prest daukagu. Gora Egape!

Horra, Urrietako ereserkiaren erritmoan lan egin duen ekipo aparta.

Este año estamos de enhorabuena. La ikastola ha participado por primera vez en la Tamborrada de fiestas.



ANTOLATZAILEEN IRITZIAK

“Ilusioa eta itxaropena, haurrek eta gurasoek jarri dutena. Honelako jendearekin atsegina da lan egitea.”

“Cuando el DESEO y LA BUENA VOLUNTAD se unen en la misma dirección, TODO SE LOGRA. Además disfrutando de la compañía en el camino de GRANDES PERSONAS. GRACIAS.”

“Denbora asko eraman digu gauden lekura iristea, baina, eginko esfortzuak pena merezi izan du.”

“Una actitud ejemplar por parte de los niños y una organización que ha trabajado sin descanso han hecho posible un sueño.”

“Ez da erraza izan baina merezi izan du, ea datorren urtean ere aurtun bezain arto setitzen garen.”

“Gurasoen talde lana, umeen trebetasuna eta denon ilusioarekin danborrada polit bat lortu dugu. Esperientzia polita.”

“Me he divertido y he disfrutado con el buen ambiente del equipo y la ilusión de los niños.”

“Umeek aukera hau izatea, polita eta aberasgarria izan da. Gustura lagundu dut.”

“Esperientzia polita eta Ekipo lana ezinhobe.”



Merezitako omenalditxo

Abenduaren 18an neguko azoka ospatu genuen eta dena ez zen txis-torra eta sagardoa izan. Hori diogu, zeren eta ohiko kantaldia, postre eta gaztain dastaketa eta abarrez gain aurtengoan, ongi merezitako talde bat omendu bait genuen, Aballarri eta Azkorte guraso elkar-teak. Milesker ikastolaren partetik hainbat eta hainbat ordu eskaini dizkiguten guraso talde horiei. Guztiok gara ikastolaren parte garrantzitsua. Segi horrela.

El pasado 18 de diciembre se homenajeó a las asociaciones de padres de Egape. MUCHÍSIMAS GRACIAS a las asociaciones ABALLARRI y AZKORTE.

En este número de la revista nos gustaría daros a conocer algunas de las actividades que hemos realizado.

Este año hemos estrenado la nueva ludotéca de la Ikastola. En ella los alumnos de Educación Infantil trabajan con un especialista la psicomotricidad. Mediante una metodología global los niñ@s trabajan distintos campos: el motriz, el cognitivo y el emocional. Mediante juegos espontáneos llevados a cabo en distintos espacios trabajan su autonomía y desarrollo global.

Ludoteka berria

Ikasturte honetan ludoteka berria estreinatu dugu Haur Hezkuntzako eraikinean Egape Ikastolan. Bertan 3, 4 eta 5 urteko haurrek astero-astero psikomotrizitate saio bat egiten dute soinetako espezialistekin. Saio horietan jarraitzen den metodologia haurraren globaltasunean oinarritzen da, hau da, atal motriz, kognitibo eta emozionala bateratu egiten ditu eta haurraren garapena eta autonomia, espazio desberdinetan lantzen dira jolas espontaneoaren bitartez.

Ludotekan gauzatzen diren saio hauek **hiru txoko nagusietan** banatuta daude:

- **Gozamen sensomotorerako txokoa:** koltxonetak, espalderak, salto egiteko tokiak...
- **Segurtasuna eta alderdi afektibo sinbolikoa lantzeko txokoa:** blokeak, ispilua, txontxongiloak...
- **Errepresentazio txokoa:** margoak, plastilina...

Los alumnos de 5 años no han querido esperar a fin de curso para realizar la salida de convivencial. El 19 de noviembre cogieron el autobús que les llevó a Larraul, donde pasaron dos días en los que el buen tiempo les acompañó y pudieron hacer varias salidas para conocer el entorno. Se lo pasaron muy bien y volvieron muy contentos.

Al acercarse las Navidades los de 4 años recibieron una grata sorpresa, Mari Domingi vino a visitarles una vez más. Pasaron un rato entrañable escuchando con atención las anécdotas que les contó sobre el Olentzero.



Eta hau guztia betiko erritualak jarraituz egiten da:

1. **Sarrera:** saioarekin hasteko, haurrek nola sentitzen diren adierazten dute eta ludotekako arauak gogoratzen dituzte.
2. **Jolasa:** bakoitzak aukeratzen duen txokoa jolastera joaten da.
3. **Bukaera:** marrazkiak, plastilinarekin... egindakoa azaltzen dute eta saioan zehar sentitu dutena ere bai.

Eleaniztasuna

Eleaniztun izateak, dituen abantaila instrumental, profesional eta, batez ere, sozialaz gainera, baditu, adituen ustez, gizabanakoaren garapenari begira beste abantaila batzuk: pentsaera kreatiboagoa eta adimenaren malgutasun handiagoa erdiesten da, komunikatzeko eta harremanetarako gaitasun gehiago lortzen da, hizkuntza gehiago ikasteko erraztasuna lortzen da.

Eleaniztasunaren planteamenduak ez du orain arteko elebitasunarena ukatzen, osatzen baizik; elebitasunari eutsiz, atzerriko hizkuntzen ezagutza, erabilera eta hizkuntzen arteko lotura egitearen berri-kuntza dakar. **Eleanitz-ingelesaren** helburua elkarren arteko komunikazio arrunt batean harremanak ingelesez mantentzeko gai izatea da.



2 urtekoen estreineko irteera

Kaixo lagunak, gu ikastolako ttikiak gara, eta gaur aurreneko irteera egin dugu astoak, oiloak eta txakurrak ikustera. Sokari helduta eta negarrik egin gabe joan gara. Arantzubiko txapeldunak gara!





Larraulera irteera.

Elkarbizitzako irteera, Larraulera

*Azaroaren erdialdean
egin genuen irteera,
motxilak bete zakuak hartu
joan ginen Larraulera.
Han bizitako gauza ederrak
goaz orain esatera,
bai eta ere ateratako
argazkiak erakustera.*

Azaroaren 19 eta 20ean Haur Hezkuntzako 5urteko haurrak Larraulera joan ginen Elkarbizitzako irteera egitera. Irteera honen helburua aisialdiak eskaintzen dituen hainbat onura bizitzea da (toki berriak ezagutu, etxetik kanpo lo egitea, jolas berriak ikasi, hitz batean gelatik kanpo ere elkarbizitzen ikastea).

Oso esperientzi polita eta ederra gertatu zen. Murgil mendira igo ginen oso egurraldi onarekin. Hegoa haizea ere lagun genuen eta horrek eraginda uso paseak ikusi genituen. Gailurretik Ernio mendia ondo ikusten zen. Etxea ere aspaldiko eraikuntza izan arren, dotore mantentzen da eta eskaini zizkigun aukerak aprobetxatuz (logela handiak, jangela, tailerretako gelak, atariak ...) primeran pasa genuen.

Antzerkia eta hezkuntza

Egape ikastolak, heziketa artistikoaren dagokionean, musika eta plastikarekin batera antzerkia lantzen du umeen garapen pertsonalerako antzerkiaren ekarpen nagusia, talde joko batean parte hartzeko gaitasunak lantzean datza, norbere irudimena garatu eta inprobisazioaren bidez mundu propioak sortzean alegia.

Euskal Unibertsitateak antolatutako udako ikastaroetan parte hartutako adituak hala diote. Formazioko lehen urteetan antzerkia oso eraginkorra izaten da. Umeek ikastetxeetan ez dituzte formula kimiko eta arau matematikoak bakarrik ikasiko, euren emozioak azalarazteko eta zentzu guztien bidez gauzak aditzera emateko gaitasunak ere jorratu ahal izando dituzte.



Mari Domingi, Egapen

Joan den abenduaren 10ean, ostegunean, azken urte hauetan ohi duen bezala, Mari Domingik bisitatxo bat egin zigun. Alai eta berritsu etorri zen eta Olentzero eta berari buruzko zenbait pasadizu kontatu zizkigun. Goiz atsegina igaro genuen.

Berak kontatutako istorioak gustora entzun ondoren, guk idatzitako eskutitzak eman genizkion Olentzerorentzat; eta berarentzat, nola ez, oparitxo bat.





Ikaskuntza Kooperatiboa

2009-10 Ikasturtean Proiektu berri bat martxa jarriko dugu Ikastolan. Proiektu honen izena **Ikasteko Kooperatu eta Kooperatzen Ikasi (Ik/Ki)**, **Ikasle desberdinak elkarrekin ikasten** da eta Ikaskuntza Kooperatiboan oinarritzen da.

Proiektu honek ikastetxeko ikasi eta irakatsi jardueran aldaketa txiki batzuk eragitea du xede eta asmo, hurrengo ikasturteetan txikiak handi bihurtuko direlako. Aldaketa horiek metodologia atalekoak izango dira. Ikastalde gutxi batzuetan burutuko dira eta zenbait irakaslek zuzenduko dituzte aurrera eraman beharreko jarduerak.

Laburbilduz, ikasturte honetarako helburua hauxe litzateke: **Ikaskuntza kooperatiboaren bitartez ikasleek (taldeko guztiek) hobeto ikas dezatela eta irakasleek hobeto irakats dezatela.**

Hau guztia aurrera eraman ahal izateko Lasarteko Berritzegunearen Vic-eko Unibertsitateko Pedagogia alorreko buru den J.R. Lagoren laguntza eta aholkularitza izango dugu. Ikastolako irakasle batek

hilean behin bertan antolatuko diren mintegietan parte hartuko du eta ikastolan bertan talde bat osatu da parte hartuko duten irakasleekin.

Proiektu pilotu bat da, berria, eta oso ilusionaturik gaude, benetan, oso aberasgarria izan daitekelako ikasle eta irakasleentzat.

Oro har ikasturte honetako plan hau litzateke:

- **Lehenengo hiru hileroan zenbat dinamika burutuko dira geletan talde kohesioa lantzeko.**
- **2. hiru hileroan kooperazio-jarduerak burutuko dira zenbat edukin lantzeko.**
- **3. hiru hileroan jarduerekin jarraituko da eta proiektuaren ebaluazioan murgilduko gara**

Ikasturtean zehar egingo diren dinamika eta jarduerak ez dute inongo eraginik izango bete beharreko programetan eta, ezta ere, landu beharreko edukinetan. Ikasi-irakasteko prozesuan izango du eragina.

Proyecto de Aprendizaje Cooperativo

Este curso 2009-10 hemos puesto en marcha un nuevo proyecto en la Ikastola. El nombre de dicho proyecto es: **Cooperar para aprender y aprender a cooperar. Alum@S diferentes aprendiendo juntos** y está basado en el Aprendizaje Cooperativo.

El objetivo de este proyecto es producir pequeños cambios en los sistemas de Enseñanza-Aprendizaje. Cambios que serán pequeños en los próximos años pero se convertirán en grandes en el futuro. Dichos cambios se producirán en la metodología. Se llevarán a cabo en unos pocos grupos de alum@S y las actividades serán dirigidas por un grupo de profesoras y profesores.

Resumiendo, el objetivo para este curso sería el siguiente: que por medio del Aprendizaje Cooperativo el grupo de alum@S aprenda mejor y el profesorado enseñe mejor.

Para poder realizar todo esto contaremos con la ayuda y el consejo de J. R. Lago responsable del Departamento de Pedagogía de la Universidad de Vic a través de seminarios que se organizarán en el Berritzegune de Lasarte. Un/una profesor/a de la Ikastola participará

en dichos seminarios y el grupo de profesores/as que se ha organizado en la Ikastola llevará adelante lo allí trabajado.

Es un proyecto piloto, nuevo y estamos muy ilusionad@s pues creemos que puede ser muy enriquecedor tanto para l@s alum@S como para el profesorado.

En general, el plan para este curso sería el siguiente:

- **Durante el Primer Trimestre se realizarán en las aulas diversas actividades para trabajar la cohesión grupal.**
- **En el Segundo Trimestre se realizarán actividades de cooperación para trabajar algunos contenidos.**
- **Finalmente en el Tercer Trimestre se continuará con las actividades y se realizará la evaluación del proyecto.**

La dinámica y las actividades que se llevarán a cabo durante el curso no tendrán influencia en la programación y, por supuesto, tampoco en los contenidos que se han de trabajar. Su influencia será en el proceso de Enseñanza-Aprendizaje.

Agenda 21

Ikastetxeko eta herriko ingurumen-kudeaketari dagozkion oinarriko gaiak Eskolako Agenda 21ean aztertu, berrikusi eta hobetzen dira.

Eskolako Agenda 21ek ikasleei euren inguruko ingurugiroaren problematika aztertzeke eta ulertzeke, baita herritar arduratsua izateke ere bidea ematen die, gizarte bidezkoagoaren eta ekologia aldetik iraunkorragoaren alde egin dezaten. Guraso, administratzaile, irakasle, ikasle eta, azken batean, ikastetxea errealitateetik hurbilago eta komunitatean integratuago dagoen gune parte-hartzaile, kritiko eta osasuntsu bilakatu nahi duten guztiei.

Aurten, energia gaiaren inguruan arituko gara lanean eta proiektua aurrera eraman ahal izateko gurasoen laguntza beharrezkoa izango dugu. Pasa den ikasturtean uraren inguruan zenbait lan burutu genituen eta ihazko ildo beretik jarraituz, gaia aurrera eraman ahal izateko, zenbaitetan gurasoen laguntza eskatuko dugu. Gure aldetik, ikastolan gelako jarduerekin lotutako zenbait ekintza burutuko ditugu.

Era berean gogorazini dugu, joan den urtean eta aurrekoetan landutako ohitura honekin jarraitzeko: zakarren bereizketa eta erreziklaketa, ur kontsumoa zaintzea (hortzak garbitzeko mementuan iturria ixtea, bainatu ordez dutxa hartzea...).



Aurten energiarkin loturiko zenbait aholku bidaliko ditugu ea denon artean emaitza positiboak lortzen ditugun guztion onurarako. Animo!

Por medio de la AGENDA 21 la ikastola gestiona tanto internamente como a nivel del pueblo el tema medioambiental. Creemos que es necesario crear ciudadanos responsables y con conciencia ecológica. Así como el pasado año el tema de trabajo fue el agua, este año lo será la energía. Para ello será imprescindible la ayuda de los padres. A ver si entre todos somos capaces de reconducir malos hábitos para el bien de todos.

Marizulo musika bloga


Egape ikastola lan handia egiten ari da azken urte hauetan IKT edota teknologia berrien inguruan. Duela bi ikasturte, Interneterako sarbidea ahalbidetzen zuen zerbitzaileaz gain, IKT arduraduna izendatu zen eta irakaslearen ehuneko handi batek eskuratu du Eusko Jaurlaritzak eskatzen duen lehen profila. Azpiegiturei dagokionean, berriaz, bost gela kanoioez hornituta, hiru ordenagailu gela eta bi arbel digital ditugu. Aurten pauso berri bat eman dugu: **Marizulo, Musika gelako bloga** (<http://musikaegape.nireblog.com>).

Oinarriko konpetentzien marko teorikoak dio, etorkizunari begira egon nahi duen hezkuntzak, nahitaez IKTak eguneroko praktikara eraman behar dituela.

Blogen erabilpena irakaskuntzan gero eta gehiago zabaltzen ari da, baina hori gauzatzeko interneterako sarbidea etxeetan izatea ere beharrezkoa da.

Hauek dira gure inguruko datuak.

INTERNETERAKO SARBIDEA ETXEETAN



Iturria: EUSTAT, INE EUROSTAT.



Eta zer da Bloga?

Bloga, weblog edota bitakora aldika eguneratzen den web orri bat da. Bertan egiten diren sarrerak kronologikoki atzekoz aurrera azaltzen dira. Mota askotako blogak daude, bizitzako edozein arlo lantzen dituztenak, irakasgai desberdinetakoak, ikasleenak, irakasleenak... Marizulo bloga azken hauetakoa dugu.

Eta zer da Marizulo?

Marizulo Egape ikastolako musika bloga dugu. Bertan, gai honekin zerikusia duten bideoak, entzunaldiak (abestu edota txirula jotzeko) eta testuak daude. Ikasle guztiek Internet ez dutenez, gelako lanaren osagarri dela esan genezake. Urrian Portu bazen ere, jada zazpimila bisitari izan ditu. Ikaslea ez da halere bisitari soil bat, irakaslearekin harremanetan jar daiteke, proposamenak luzatu... finean interneten erabilpenez hezitzen ari da, irakaskuntzaren sozializazioan, bere identitatea indartzen.

Aurrera begira ikasleen sorkuntzak, hala nola power pointak eta dokumentuak ere eskegitzeko asmoa dugu eta harrigarria badirudi ere, beraiek bloga sortzea guztiz bideragarria ikusten dugu.

La ikastola está haciendo un esfuerzo importante en torno a las nuevas tecnologías: creación de infraestructuras, reciclaje del profesorado... El blog de la clase de música MARIZULO nos va a permitir llevar las TIC a la práctica diaria. Los Blogs son un recurso educativo que se va extendiendo cada vez más en la educación.

Siendo un material complementario a la práctica habitual, gracias a él, los alumnos pueden comunicarse de otra manera y acceder a audios, videos y demás materiales propios de la educación musical.

Eskola arteko Herri Kirol Txapelketan, Egape ikastola bigarren

XABIER ORKAIZAGIRRE

Azaroak 6an, ostirala, eskola arteko Herri Kirol Txapelketako finalak jokatu ziren Billabonan. DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek hartu genuen parte. Sail bakoitzeko hamar herri zeuden.

DBH 3. mailakoak egin beharreko probak hauek ziren: sokatira, txingak, lokotx bilketa, egur pila eta azeri buztana.

Hamaiketako ere eman ziguten eta Goenatxo etorri zen harri era-kustaldia eskeintzera eta aukera eman ziguten harria jasotzera ateratzeko. Bukatutakoan sariak eman zizkiguten. Egapeko DBH 3. mailakoak bigarren geratu ginen eta txapeldunak oartzuarrak izan ziren. Oso giro ona eduki genuen eta primeran pasa genuen.

El pasado 6 de noviembre se celebró en Villabona la final de Gipuzkoa de Herri Kirolak, en la que participamos los alumnos de 3º y 4º de DBH. Las pruebas eran las siguientes: sokatira, txingak, lokotx bilketa, azeri buztana...

Nos dieron un almuerzo y Goenatxo nos hizo una exhibición de levantamiento de piedra. Después se repartieron los premios. Lo pasamos muy bien.



4. DBHko ikasleen tortilla-postua

ANE ARREGI

Urtero, 4. mailan dauden ikasleek kurtso amaierako bidaia egiten dute eta dirua ateratzeko ahalegin handiak egiten dituzte. Aurten gure txanda iritsi da eta lan asko ari gara egiten, lan horien artean, jolas-garaitan jartzen den bokata postua aipatu beharra dago.

Idea hau orain dela urte batzuk jarri zen martxan eta egia esan aurrrera ateratzeko ez dugu gehiegizko trabarik izan, antolaketa dezenteterraz eta guztientzako probetxuzkoa delako, horrek ordea ez du kentzen batzuetan izaten diren liskar edo arazo txikiak.

Astean bitan irekitzen da postua, asteazken eta ostiraletan, jardunaldi jarraitua aprobetxatuz eta esan beharra dago nahiko ongi joaten dela eta bai erosleak bai saltzaileak oso pozik gaudela.

Postua irekitzen den egun bakoitzean hiru ikaslek eramaten dute tortilla eta badira egun batzuk faltan ere izaten dela, duen arrakasta ordea ez zaigu zerutik erori, txandak prestatu, prezioak finkatu, ogia eskatu eta kopuruak kalkulatzeko ez baita erraza.

Gainera, aurten, Poxta Zahar elkarteak, festetan ere bokatak saltzeko aukera eman digu; postu bat eta beharrezkoak ziren gainerako gauza guztiak erraztuz. Harrera ona izan zuen bi asteburutan zehar eta horrela jendeak ere ikusi zuen bidaia egiteko gure barnean dagoen ilusio guztia eta lan egiteko prest gaudela aste zoragarri bat pasatzeko gure ikastola kuttun honetan pasako dugun azken urtean.

Con el objeto de conseguir dinero para el Viaje de Fin de Curso todos los miércoles y viernes los alumnos de 4º de ESO montamos en el recreo un puesto de tortillas. Esta idea se puso en marcha hace unos años y, aunque requiere cierta organización para fijar precios, hacer turnos y calcular cantidades, marcha muy bien. Estamos muy contentos con el resultado.



Este año, por otro lado, los integrantes de Poxta Zahar nos dieron la oportunidad de montar un puesto de bocatas en fiestas y con mucha ilusión hemos tomado parte en esta iniciativa, teniendo en cuenta, además, que éste será nuestro último año en la Ikastola.

Nos dieron un almuerzo y Goenatxo nos hizo una exhibición de levantamiento de piedra. Después se repartieron los premios. Lo pasamos muy bien.



2. mailako ikasleak Kutxagunean



1. mailako ikasleak polimeroak aztertzen.

Egapeko ikasleak zientzia astean

Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak, "Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren VIII. Astea" antolatu zuen azaroan eta DBH-ko 1. zikloko ikasleak bertan izan ziren. Azaroaren 10ean 2. mailako ikasleak Zientziaren KutxaGunean "Energiarekin" eta "Elektrizitatea" tailerretan parte hartu zuten eta azaroaren 12an 1. mailakoak Donostian izan ziren, Artzai Onaren plazan jarri zituzten guneetan. Bertan zientziaren zenbait arlo ezagutzeko aukera izan zuten: nanozientzia, errobotika, matematika, Zientzia eta emakumea, osasuna...

Con motivo de la celebración de la VIII Semana de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación organizada por Innobasque (Agencia Vasca de la Innovación), los alumnos de Egape participaron en diversas actividades. El 10 de noviembre, los alumnos de 2º participaron en los talleres de la energía y la electricidad en KutxaEspacio. El 12 de noviembre, los de 1º estuvieron en el Buen Pastor, conociendo diversas facetas de la ciencia como la nanociencia, la ciencia en la salud, la robotica, las matemáticas, la ciencia y la mujer...

www.berde-berdea.net

Beste urte batez Berde-berdea, Kutxak sustatutako ingurumen proiektua, martxan jarri da eta Egape Ikastolako DBHko 1. mailako ikasleek bertan parte hartzen ari dira. Ingurumen Proiektu honek honako helburu hauek ditu: ingurumena ezagutaraztea, harekiko errespetua sustatzea eta gaztetxoak haren aldeko ekintzaile bihurtzea.

Teknologi berrien laguntzarekin (animazioak, galdeketa, kuadernoak), sei gai lantzen ditu: bioaniztasuna, atmosferaren kutsadura, ura, oporraldi ekologikoagoak, klima-aldaketa eta energia. Bestalde, ekimen honen bidez, ingurumenaren alde lanean ari diren zenbait elkarte diru-laguntzak jasotzen dituzte ikasleen parte-hartzeari esker. Honela ikasturte bukaeran, ikasleek lortzen dituzten puntuak laguntza ekonomikoan bihurtzen dira aukeratutako elkarteari banatzeko. Aurten Egapeko ikasleek Arrano Etxea (Gipuzkoako Animalia Basatien Aterpea) eta E.I.B.E. (Euskal izurde eta baleazaleen elkartea) aukeratu dituzte.

Dena den animatu nahi zaituztegu gurasoei, zuen seme-alabekin batera berde.berdea web orria bisitatzera. Bertan euskaraz idatzitako artikulua interesgarriak aurkituko dituzue, jokoak, elkartei buruzko informazioa, berriak... Gainera Google Earth erabiliz eta etxetik edo nork parte hartzeko lehiaketa bat antolatuko dute. Anima zaitetzte!

El alumnado de 1º de ESO toma parte en el proyecto medioambiental Berde-berdea. Este proyecto es iniciativa de la obra social de Kutxa y busca fomentar el conocimiento, respeto y participación de la juventud guipuzcoana en la mejora del medio ambiente. Usando las nuevas tecnologías y por medio de diferentes materiales: animaciones, cuestionarios, cuadernos... se trabajan temas como la diversidad, contaminación atmosférica, agua, cambio climático, energía...

La participación de los alumnos en los centros genera ayudas económicas a diversas entidades que trabajan por el medio ambiente. Animamos a padres-madres a visitar la web junto a vuestros hijos. Hay interesantes artículos, juegos, información sobre las asociaciones... y un concurso en el que podéis participar desde casa.

laguntzaileak



Urnieta
Idiazabal, 20
943 306 310

ZU ERE IZAN ZAITEZKE
GURE LAGUNTZAILE

Urnietako Udalak
diruz lagundutako aldizkaria